

BEZEROEKIN HARREMANAK



Gure bezeroengana hurbiltzeko, harremana telefonoz eta pertsonalki mantenduko dugu. Horrela, edozein arazo izanez gero gure telefono zenbakia beti eskura izango dute beraien dudak argitu ahal izateko. Dena dela, pertsonalki izango dugun harremana ere estua izango da gure zerbitzua horretan oinarritzen delako; elkarrekin egingo ditugun jarduera desberdinen bidez jakintza berriak erakustean.

Beraz, bezeroekin izango dugun harremana garrantzitsua izango da; denbora asko igaroko baitugu elkarrekin. Orduan, ezinbestekoa izango da hartu-eman horretan konfiantza izatea eta bezeroak nahiz langileok giro onean lanean aritzea, elkarri lagunduz.

Bezeroak erakartzeko eta gure zerbitzua ezagutarazteko metodoari dagokionez, edozein ekintza egin aurretik, hainbat hitzaldi emango ditugu gure proiektua zertan datzan azalduz, zaharren egoitzan adibidez; eta kaleetan liburuxkak banatuko ditugu, jakin beharreko informazio guztia daramatzatenak.

Proiektuan zehar, gure bezeroek orduz kanpoko laguntza behar baldin badute, taldeko kide bakoitzak zenbaki bat izango du harremanetan jarri al izateko. Ez da egun guztiko zerbitzu izango, goizeko zortzietan hasi eta arratsaldeko bostetan amaituko da. Telefono bidezko harremana izango da, astelehenetik zapatara arte; proiektuz kanpoko zalantzak galdetzeko, egunero landuko ditugun ekintzei buruzkoak.